

ZALDIBIAKO UDAL KOMUNIKAZIO,
ZERBITZU ETA PARTE HARTZEKO BIDEEN INGURUKO

Inkesta

Zure iritzia behar dugu hobetzen jarraitzeko



Inkesta ON LINE erantzuteko, aukeratu hizkuntza:
EUSKARAZ, Castellano, عربي, Română, English



ZALDIBIAKO
UDALA

INKESTA 2022

ZALDIBIAKO UDALA

KOMUNIKAZIOA
UDAL ZERBITZUAK
PARTE HARTZEA

ZALDIBIAKO UDALA



ZALDIBIAKO
UDALA

INKESTEN ERANTZUNEN AZTERKETA

INKESTA ERANTZUN DUTENEN PERFIL-DATUAK:

PARTE-HARTZAILE KOPURUA:

- 86 lagunek erantzun dute galdetegia.
- 62k internet bidez eta 24k paperean.
- Paperean aurkeztuetatik, 15 udaletxean eta 9 kultur etxean.
- Paperekoak euskaraz daude, euskaraz bakarrik inprimatu baitziren.
- Herritar batek gaztelerazko kopia eskatu zuen. Helarazi zitzaion arren, gero ez zuen aurkeztu.

GENERO IDENTITATEA:

- 51 emakumezko (%62.2)
- 30 gizonezko (%36.6)
- 1 ez-bitarra (%1.22)
- Deigarria: lau herritarrek ez dute genero identitatea zehaztu. Bestalde, errumanieraz erantzun duten lau pertsonak emakumezkoak dira.

HIZKUNTZA:

- 10etik 8k euskaraz erantzun du
- Euskara %82.4
- Gaztelera %12.9
- Errumaniera %4.7
- Arabieraz eta Ingeleraz ez du inork erantzun.

ADINA: abaniko zabala

- Gazteenak 19 urte eta zaharrenak 84, baina tartean hamarkada guztietako jendea.
- Inkesta erantzun dutenen hirutik batek 34 eta 46 urte artean ditu.
- Gehien errepikatu den adina 40 urtekoa izan da, 5 inkestarekin.
- Deigarria: Gazteleraz erantzun dutenen artean, %72ak 43 urte edo gutxiago zituen.



ZALDIBIAKO
UDALA

INKESTEN ERANTZUNETAN JASOTAKOAREN LABURPENA:

OHARRA: Erantzunak aztertzean bereiztu egin dira euskaraz, gazteleraz eta errumaniarrez erantzundakoak, euren artean aldaketa nabarmenak antzeman baititugu.

EUSKARAZ:

KOMUNIKAZIO BIDEAK:

- Gehiengo zabalak komunikazio bide guztiak “ezagutzen ditu”, edo “ezagutzeaz gain erabiltzen ditu”. Paretsu daude bi aukerak. Nabarmentzeko zerbait esatearren, inkesta bete dutenen %30ak ez du ZAPP ezagutzen.
- %72ak ez du uste erabilgarria ez den komunikazio biderik dagoenik. Gainontzeko %28tik erdiak baino gehixeagok uste du ZAPP eta Buletina ez direla erabilgarriak.
- %73.5ak ez du faltan botatzen beste komunikazio biderik. %11.8k Telegram, eta %13.2ak autoa megafoniarekin.
- %72.9ak uste du nahikoa komunikazio bide dagoela, eta %22.9ak uste du gehiegi daudela.
- Gehien baloratzen den informazio mota “Kultur agenda, ikuskizunak, ikastaroak...”, “herriko albisteak” eta “trafiko oharrak, ur mozketak, zerbitzuen inguruko” albisteak dira.

ARRETA eta ZERBITZUAK:

- Zerbitzu erabilienak → liburutegia, udaletxeko harrera eta idazkaritza, hurrenez hurren.
- %68ak ez du bulego birtuala ezagutzen, eta ia %50ak ez ditu diru-bilketa zerbitzua eta berdintasun zerbitzua ezagutzen.
- %83.6ak ez du zerbitzuez gain besterik faltan botatzen. Zerbitzuren bat faltan botatzen duten 10 lagunen artean, kirol zerbitzu edo instalazio gehiagoren eskaera aipatzen da gehien.
- Gehiengo handia nahiko edo oso gustura dago udal zerbitzu guztiekin.
- Haiekin hain gustura ez dagoen jende gehien duten zerbitzuak honakoak dira: %29 hirigintza eta %22.2 musika eskola. Baina esan bezala, hauetan ere gehiengo dira nahiko edo oso gustura daudenak.
- %73.2ak uste du ez dagoela aldaketa edo hobekuntzarik behar duen zerbitzurik. Baietz erantzun duten 13 lagunen artean, gehien errepikatu den erantzuna kirol zerbitzu eta instalazio gehiagoren beharra da.



ZALDIBIAKO
UDALA

- Hamabi lagunek (%15.12) aipatu dute aldatu edo handituko luketela zerbitzuren bateko ordutegia. Hauen erantzunen artean, gehien errepikatzen direnak liburutegia (egunero ez bada ere, behintzat astean behin goizez irekitzeko aukera) eta udaletxeko harrera (egunero ez bada ere, behintzat astean behin arratsaldez irekitzeko aukera) dira.

PARTE-HARTZEA:

- %47.7ak ez du herriko inongo taldetan parte hartzen gaur egun. Eta hauetatik %44.8k ez du sekula parte hartu. Noizbait parte hartu baina gaur egun parte hartzen ez duten beste %55.2tik ia guztiek, asti faltagatik edo interesa galdu zutelako utzi zioten parte hartzeari.
- %79.1arentzat oso positiboa da udalak parte-hartzerako ekimenak sustatzea, eta nahiko positiboa %17.9arentzat.
- Udalaren partehartzerako bideak: gehiengo zabal batek ezagutzen ditu bost bideak. Aipagarria da gai zehatzen inguruko bileretan eta auzolanean, gehiago direla ezagutu eta parte hartu dutenak, ezagutu baina parte hartu ez dutenak baino.
- %25 inguruk ez ditu ezagutzen “batzordeak eta lan-arloetako bilerak”, eta “udal plenoa edo osoko bilkurak”. %15 inguruk ez ditu ezagutzen “udal herri batzarra” eta “gai zehatzen inguruko bilera partehartzaileak”.
- Bide horietako batean parte hartu dutenen %87.2arentzat funtzionamendua egokia izan zen.
- Inoiz parte hartu ez dutenen %44.4arentzat asti falta da arrazoia. %27.8arentzat ez dela gai sentitzen eta %22.2arentzat interes falta.
- Udalak parte-hartzeko gonbidapena luzatuz gero, %36.5ak baietz erantzun du, beste %54.5 batek gaiaren arabera. Ezetz erantzun dutenak %9.1a dira. Ikusten da euskarazko inkesta erantzun duen jendearen profila nahiko konprometitua dela.
- Partehartzea bultzatzeko proposamenak egitean, nabari da jendeak zaila ikusten duela.

Tarte irekia: erantzun ugari daude, oso anitzak.



ZALDIBIAKO
UDALA

GAZTELERAZ:

KOMUNIKAZIOA:

- Buletina ez du inork ezagutzen.
- %66.6ak ez ditu ezagutzen Itturitik aldizkaria eta ZAPP aplikazioa
- %40ak ez ditu zaldibia.eus webgunea eta Whatsapp kanala ezagutzen
- Nahikoa komunikazioa bide dagoela uste du %72.7ak
- Albiste mota oro interesatzen zaie orokorrean, baina deigarria da asanblada eta bileren inguruko informazioa ez zaiola bati berari ere axola.

ARRETA ETA ZERBITZUAK:

- Harrera eta idazkariaren zerbitzuak ia denek erabiltzen dituzte.
- Erdiak baino gehixeagok ez dituzte ezagutzen diru-bilketa, Etxez-etxeko laguntza, Berdintasuna, hilerri zerbitzua eta bulego birtuala.
- Faltan bota (3k erantzun dute, ideia bana): haurrentzako kirol-lehiaketak, informazio-bandoak beste hizkuntza batzuetan publikatzea, eta Egoera onean dauden objektuak uzteko lekuren bat, beste pertsona batzuek aprobetxa ditzaten.
- Asebetetze maila: gehiengo handia nahiko edo oso gustura zerbitzu guztiekin.
- Zerbitzuetako ordutegiekin kexarik ez.

PARTE-HARTZEA:

- %72.7ak ez du inongo taldetan parte hartzen, eta %27.3ak urtean behin edo pare bat aldiz bakarrik.
- Udalak parte hartzera bideratzen dituen bideak: bat bera ere ez dute ezagutzen, kasu solteren bat salbu.
- Gairen baten inguruan parte hartzera gonbidatuak izango balira, ordea, %50ak “gaiaren arabera” erantzun du.

Tarte irekia: Zerbait proposatu duten 4 lagunetatik 2k “Udalaren informazioa euskaraz bakarrik EZ zabaltzea” erantzun du.



ZALDIBIAKO
UDALA

ERRUMANIERAZ:

KOMUNIKAZIOA:

- Interpretatzen ez dago erraza, galdera batzuetan pare bat erantzun besterik ez baitaude.
- Dena den, deigarria da zaldibia.eus eta zaldibiaInfo whatsapp kanala ezagutzen dituztela. Gainontzeko komunikazio bideen ezagutza baxua da.
- Erantzun duten hiru lagunetatik bik ez du erabilgarri ikusten kaleko informazio paneletan jarritako informazioa.
- Laurek erantzun dute nahikoa komunikazio bide dagoela.
- Gehien interesatzen zaien informazioa: Trafiko ohar, ur mozketa eta abarrak... eta udal zerbitzuen ingurukoak.

ARRETA ETA ZERBITZUAK:

- Herri baratza eta bulego birtuala ez ditu inork ezagutzen.
- Ezagutu eta erabiltzen dituzten zerbitzuak: harrera, idazkaria eta gizarte-zerbitzuak, kirol zerbitzuak, liburutegia, musika eskola eta euskara, hurrenez hurren.

PARTE-HARTZEA:

- Lau horietatik bik ez dute inongo taldetan parte hartzen, eta beste biek urtean behin edo pare bat aldiz bakarrik.
- Udalak parte hartzea bultzatzeko bideak sustatzea oso positiboa iruditzen zaie.
- Udalak parte hartzera bideratzen dituen bideak: bat bera ere ez dute ezagutzen, kasu solteren bat salbu.
- Gairen baten inguruan parte hartzera gonbidatuak izango balira, ordea, erantzun duten bietatik batek baietz esan du, eta besteak “gaiaren arabera” erantzun du.

Tarte irekia (bakarrak erantzun du): euskara ez omen du ulertzen eta itzulpenik ez duela jartzen Udalak.